



**CÉSAR UCEDA IV. SARIA**  
**Leioa Gazte Interpretatzaileak**



**Leioa**  
UDALA-AYUNTAMIENTO



**kultur**  
LEIOA

**conservatorio**  
udal  
musika eskola  
Leioa

## oinarriak

- 1 Musika Kontserbatorioetako Erdi Mailako edozein kurtsotan edo Erdi Mailako Zentro Baimenduetan matrikulatuta dauden ikasleek parte hartu ahal izango dute Lehiaketa honetan, gehienez 20 urte izan behar dira, lehiaketa egiten denean. Perkusioko ikasleek ezin izango dute inolaz ere izena eman, ez eta Sarian parte hartzen duten Instrumentuko Goi Mailara heldu direnek ere.

Lehiaketa honetan epaituko den oinarritzko irizpidea interpretazioaren kalitatea eta musikaltasuna izango da, instrumentu jakin baten teknika-ren gaitetik.

## izena emateko prozesua

- 2 Parte hartzeko interesa duten ikasleek 2009ko martxoaren 13a baino lehen eman behar dute izena, prozedura honi jarraituz:
- A 20 euro-ko inskripzio kuota ordaindu behar da. Horretarako, banku transferentzia egingo da 2095 0048 28 3201032721 kontu-zenbaki honetan. Kontzeptu gisa, “César Uceda IV. Saria - Leioa Gazte Interpretatzaileak” eta parte-hartzailearen izena adierazi behar da.

- B Ikasleak posta ziurtatuz bidaliko du izena emateko orria, dokumentazio honekin batera:
- 1 Parte-hartzailearen curriculum laburra.
  - 2 Kontserbatorioko edo Baimendutako Zentroko matrikulazio-egiaztagiria eta aurreko Erdi Mailako ikastaroen espediente akademikoa.
  - 3 NANren edo, nazionalizatu gabe dauden atzeritarren kasuan, egoitza ziurtagiriaren fotokopia.
  - 4 Agirirako neurriko argazki berri bat.
  - 5 Interpretatuko diren partituren fotokopia bi.
  - 6 Inskripzio eskubidea izateko, 2095 0048 28 3201032721 kontu zenbakian 20 euro ordaindu izana frogatzen duen agiriaren fotokopia.

Hori dena helbide honetara bidali behar da:

105 Posta Kutxa  
48950 Erandio (Bizkaia)

Gutunazalean “César Uceda III. Saria - Leioa Gazte Interpretatzaileak” idatzi behar da.

- Gehienez 15 parte-hartzaile onartuko dira. Eskabide gehiago badago, Erdi mailako espediente akademikoaren arabera egingo da aukerake-

ta; izan ere, egindako Erdi Mailako ikastaroen kopurua hartuko da kontuan, eta instrumentu nagusia bikoitza baloratuko da gainontzeko irakasgaiekin alderatuta.

- Aukeraketaren emaitza telefonoz eta posta elektronikoz jakinaraziko da.

## **probak**

**3** Probak Leioako Kontserbatorioko Auditorioan (Iparragirre Etorbidea, 76 - 1. solairua) egingo dira 2009ko martxoaren 28an (larunbata). Probak goizeko 10:00etan hasiko dira; izan ere, Epaimahaiko kideak nortzuk izango diren iragarriko da eta parte-hartzaileak zein ordenatan arituko diren zehazteko zozketa egingo da. Parte-hartzaileek NAN edo pasaportearen bitartez egiaztatu beharko dute nortzuk diren.

**4** Parte-hartzaileek beraiek askatasunez aukeratu-tako lan edo lan-zati bat edo batzuk interpretatu beharko dute, gehienez 20 minutuko epean; beharrezkoa balitz, akonpainamendurekin interpretatu ahalko dituzte. Kasu horretan, instrumentista laguntzailea parte-hartzaileak berak eraman beharko du.

**5** Epaimahaia honakoek osatuko dute:

- Musika arloan ospea duten hiru pertsonak.
- Leioako Kontserbatorioko Zuzendariak, edo eskuordetzen duen pertsonak. Idazkari lana egingo du.



## sariak

- 6** Saioak amaitu ostean, epaimahaia erabakia hartzera erretiratuko da, eta, ondoren, jendaurrean jakinaraziko dira irabazleen izenak eta saririk jaso ez duten lehiakideei diplomak emango zaizkie parte hartu izanagatik. Egun bereko 20:00etan, sariak banatzeko ekitaldi ofiziala izango da Kultur Leioako Auditorioan; hona hemen egitaraua:
- 1. sarituen emanaldia ( 10' inguru)
  - Hiru sariak emateko protokolozko ekitaldia.
  - Leioako Gazte Orkestraren kontzertua.
- 7** Hiru sari emango dira:
1. saria: plaka bat eta 600 euro
  2. saria: plaka bat eta 450 euro
  3. saria: plaka bat eta 300 euro
- 8** Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.
- 9** Lehenengo saritua nahitaez aritu beharko da sariak banatzeko ekitaldi ofizialean.
- 10** Lehiaketan izena ematen duten parte-hartzaile guztiek bertan parte hartu izana egiaztatuko duen diploma bat jasoko dute.
- 11** Parte-hartzaileek, izena ematearren, oinarri hauek guztiak oso-osorik onartzen dituzte.



Izena

---

Abizenak

---

NAN edo Pasaporteia

---

Egoiliartasun Txartela

---

Jaioterria

---

Jaiotza Data

---

Gaur Eguneko Helbidea

---

Herria

PK

---

Probintzia

Herrialdea

---

Eskuko telefonoa

Telefono Finkoa

---

Beste Telefono bat

---

Posta Elektronikoa

---

Interpretatuko diren lanak (iraupena, gehienez 20')

---

---

---

---

---

---

---

Gaur egun musika-ikasketak zein zentrotan egiten dituen

Entregatutako dokumentazioa

NAN  Pasaportea  Bizileku-txartela

Agirietarako tamainako argazkia  Curriculum

Inskripzio eskubidea esateko

Interpretatuko diren lanen fotokopiak (iraupena, gehienez: 20')

Gaur egun musika-ikasketak egiten ari den Zentroko matrikula-agiria

Erdi Mailako ikasketa-espedientea